



Adin honetako haurrek badakite zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki. Badakite, baita ere, noiz ari diren norbaiti kalte egiten...

Ez dugu azpimarratuko zer egiten duten gaizki; besterik gabe, esango diegu familiako norbaitekin edo lagunen batekin gaizki portatzen garenean edo oker jokatzeko dugunean urrundu egiten garela harengandik, eta triste egotea garela, baina adiskidetzak eta barkamenak elkartu egiten gaituztela berriz ere, eta poza sentitzen dugula.

Parabola lau binetatan dakarren orria emango diegu. Denen artean, konta dezatela seme galduaren edo aita onaren parabola. (Etxera eramango dute, margotzeko. Nolanahi ere, dena landu ondoren astirik izanez gero, hemen bertan has zaitezketek margotzen).

Irakur ditzatela 34. orrialdeko erantzunak.

«Nork jardun du ondo, barkatu duen aitak ala haserretu den anaiak?»

Irakur dezatela 35. orrialdean idatzi dutena.

Hor daukazue Zuhaitzaren hizkuntzaren ipuina. Marka (***) dagoen lekuraino irakurri. «Zuek nola jardungo zenukete? Zuen ustez, nola jardungo du familiak?».

Zuhaitza horman daukagu. Haur bakoitzak idatz dezala paper puska batean zer egingo lukeen, eta itsatsi papertxo guztiak zuhaitzean.

Azpimarra dezagun barkamenak duen garrantzia. Jainkoa aita hura bezalakoa da, semeari inolako konturik eskatu gabe barkatu zion aita hura bezalakoa. Guk ere barkatzen jakin behar dugu, eta norbaiti huts egiten diogunean barkamena eskatzen. Orain, irakur dezagun ipuinaren bukaera.

Letra-zopa bat ere baduzue, parabolako hitzak bilatzeko.

Bukatzeke, gurutzearen seinalea egingo dugu.





Anselmo hiriko kaleetan zehar poliki zebilen. Noizean behin atzerantz begiratzen zuen ea norbaitek jarraitzen ote zion. Denengatik beldur zen: lehengo ezagunen batekin aurkitzeaz, poliziarekin, edozein ezusteko erasoren bat izango ote zuen. Gaizki aurkitzen zen eta hotza zuen. Abendua aurrerantz zihoan eta laster Eguberria izango zen.

Zer egin zezakeen?

Poltsikoan ez zuen txanponik, jatetxe batera sartu zen sukaldeko ontziak garbitzen lan egitera baina ile zikin eta bizarra erdi mozturik zuela ikusi zutenean ez zutela langilerik behar esan zioten.

Lur horietara nahiko dirukin iritsi zen, ez zitzaiola bukatuko pentsatu zuen eta edonola gastatu zuen.

Ez zitzaizkion lagunak falta, baina ezer gabe eta erdi gaixorik ikusi zutenean bizkarra eman zioten. Egunero zerbait asmatzen zuen besteei dirua ateratzeko. Bere guraso eta anaiekin gogoratzen zen. Zein pozik biziko ziren beren herrian! Baina berak denbora luzez ahaztu egin zituen. Berriro hartuko lukete etxean itzuliko balitz? Hirian ikasketak egiteko eman zioten diru guztia gaizki erabili zuen. Inoiz ez zien eskutizik idatzi.

Eskutiz bat? Anselmori argi bat piztu zitzaion burmuinean: idatzi egingo zien. Nola bizi eta lo egiten zuen kalean esango zien. Baina ez; ezin zioten barkatu. Eta etxean hartzen bazuten, ohituko al litzateke herrian familiaren bizitza sinpleaz bizitzen?

Aita baratzetik nekatua zetorren. Bere adina igartzen zuen eta dena gogorra egiten zitzaion. Bere emaztea, sukaldean, afana prestatzen ari zen. Semeak, pixkanaka, etxera insten joan ziren.

- Aita, eskutiz hau zuretzat iritsi da - dio Antoniok.

Aita eseri egin zen, eskutitza ireki eta irakurtzen hasi zen. Irakurketaren erdian begirada altxa zuen, sukalderantz begiratu zuen eta bere emazteari deitu nahi izan zion. Hitzak ez ziren bere ahotik irteten:

- Ana...Ana...Ana...

Emaztea beregana joan zen. Semeak, harriturik, beraiekin bildu ziren.

- Zer gertatzen da? - galdetu zuen Anak bere senarra nahasturik ikustean.

- Anselmo... Eskutiz hau Anselmorena da. Irakur ezazu, Antonio.



"Guraso eta anaia agurgarriak: Barkamena eskatzen dizuet ñire bizitza osoarengatik, zuek ahaztu izanagatik, nire ikasle betebeharrak ez betetzeagatik, etorkizun egokia lortzeko emandako diru guztia gaizki gastatzeagatik. Gaixo nago, dirurik gabe eta inork ez du nigan sinesten..."

Antoniok irakurtzeari utzi zion, leihotik begiratu zuen eta zuhaitzak historik gabe zeudela ikusi zuen, hotza egiten zuen eta zeruak elurra mehatxatzen zuen.

Berriro eskutitzera begiratu zuen eta irakur-tzen jarraitu zuen:

" Zuek barkatzen badidazue eta etxean hartzeko prest baldin bazaudete, etxea eta trenbidearen artean dagoen zuhaitzean zapi txuri bat jarri. Ni trenez pasako naiz Eguberri bezperan. Zapia zuhaitzean ikusten badut, trenetik jaitsiko naiz eta etxera joango naiz. Ez badago, ulertuko zaituztet eta bidaia jarraituko dut".

Trena bere herrirantz gerturatzen zen neurrian, Anselmo urduriago jartzen zen. Egongo ote da zapia hain familiakoa zen zuhaitz hartan? Bere gurasoek barkatuko ote zioten? Eta bere anaiek? Laster jakingo zuen, hamar minutu baino lehen trena bere herriko geltokian geldituko baitzen.

Trena azkar pasa zen zuhaitzaren aurretik, baina Anselmok ikusi zuen. * * *

OHARRA: Kontaketaren irakurketan pausa bat egingo dugu galdetzeko:

Bibliaren zein kontaketa gogorarazten dizue? Zer egingo lukete heiek?

Kartoi mehe batean margotutako trunko bat jar dezakegu kortxoan. Zeta zurizko (muki zapi gisa) paper zatitxo bat ematen zaie hurrei. Bakoitzak pegatuko du edo ez bere aukeraren arabera (barkatuko luke edo ez).

Talde osoko hurrek esaten dutena entzun ondoren, jarraitu egingo dugu kontaketaren irakurketa.


Bere guraso eta anaiek adarretan lotutako zapi zuriz beteta zegoen. Trena gelditu zen. Anselmok bere motxila hartu zuen eta azkar jaitsi zen. Geltokian, elur asko egiten zuenez berokiak jantzita, bere familia osoa zegoen. Eguberri hori oso ezberdina izan zen bakoitzaren bihotzean. Barkatzen jakin zuten eta seme galdua berreskuratu zuten.

IV GAIA

LETRA ZOPA

A.- Bihotzean aurkitu, horizontalean eta bertikalean , parabolarekin zer ikusi duten hitzak:

SEMEAK	BARKAMENA	ONDASUNAK	BEKATUAK
GAZTEHENA	TXERRIAK	AITA	ZAHARRENA
GOSE	ITZULERA	SOINEKO	MORROIAK
ERRUKI	MUSU	ERAZTUN	ENBIDIA
	TXAHAL	JAI	



B.- Aita eta seme gazteenaren be-
sarkada margoitu zure gustoko
kolorekin.



